


Arazo pertsonalak, lan-iskanbilak eta tirabira polit

EUSKAL TELEBI TENTSIO ZAHAR GUZTIAK BAT LEHERTU DIRA



Asteotan, ETBko platoak informatibo labur batzutarra baino ez dira erabiliko igande eta astelehenetan.

Joan den hilaren 9tik aurrera eta larunbat eta igande guztiz greba bati ekin zioten ETBko lagileek, gatazka sindikal zabal bat planteiatua geratu delarik. Horrekin batera, Martin Ibarbia eta Joseba Olabarriren dimisioak eta Manu Aranburu eta Juan Garciaren kaleratzeak, desorekazko egoera horretan areagotu baino ez du egin orain arte zegoen krisia. Krisi horretan, denetarik bildu da: inkompatibilitate pertsonalak (buru batzuren kasuan), erdara gehiago sartu nahi dutenen eraso (ETB barruan indarra batik bat administrazioan dutelarik), «Studio Hamburg»en projektutik sortu diren desegokikuntzak nahiz lan-gatazkak (Langile Batzordeak Amatiño eta Areizagaren dimisioa eskatzeraino), Arzallusen aldekoek aurrera eraman zezaketen benganza baten posibilitatea... guzti horrek sortu du krisia, batez ere elementu desberdin asko eta asko elkarren nahasian agertu direlako.

Larunbat eta igandetako greba

Prolema inmediatea eta ETBko zuzendaritzak azkarrenik konpondu beharko duena Langile Batzordeak dei egindako grebarena da. Arlo horretan, soldata-igoera baino inportantzia haundiago dauka, itxura denez, ordutegiarena. Hau da, duela urte t'erdi sinatutako akordio baten arauera, aurten asteko 37,5 orduetik 35tara jaitsi beharko litzateke. ETBk akordio horren erabat irakurketa desberdina egiten duelarik. Itxura denez, hori da zuzendaritza eta langileen arteko ez-adostasun puntu nagusia.

Dena dela, ETBren prolema labo-